




EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



Dokumentu mota / Tipo de documento: ERDIBIDEKO ZUZENKETA  
Nori zuzendua / Dirigido a: EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIA  
Proposatzailea / Proponente:  
Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario: EA-NV/EH BILDU  
Data / Fecha: 2023.11.02

Espediente zb / N° de expediente: 12\11\03\00\00181

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa

Euskararen normalizazioaren aurkako oldarraldiaren inguruan

1. Eusko Legebiltzarrak adierazten du irmo agertuko dela 2016an adostasun politiko zabalarekin onarturiko Toki Entitateen 2/2016 legearen zein erakundeek bere jarduera antolatzen duten eskumen eta gaitasunaren defentsan.
2. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio euskararen gaia erdigunean izaki, 179/2019 dekretuaren defentsa egin dezala, indargabetu diren artikuluen horien legezkotasuna defendatuz, bere gain dituen bitarteko juridikoak eta Justiziaren esparruak ematen dituzten aukera guztiak erabiliz.
3. Eusko Legebiltzarrak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari hemendik aurrera ere normalizazio eta biziberritze politikak garatzeko, eta euskarak etorkizunera begira dituen erronka haundiei aurre egiteko EAEko sektore publikoko erakundeek herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko beharrezko duten babesa sakondu dezala.
4. Eusko Legebiltzarrak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, aurrerantzean ere, jarraitu dezala euskararekiko gizartearen atxikimendua eta adostasun zabala sustatzen eta elikatzen.
5. Eusko Legebiltzarrak eskatzen die erakunde publiko guztiei barrendu ditzatela orain artean emandako beren eskumeneko zerbitzuak herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatze aldera.
6. Eusko Legebiltzarrak eskatzen die udalei, herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak izanik, zein gainontzeko erakunde publiko guztiei, eta sektore publikoa osatzen duten herri-langileei mantendu dezatela azken 40 urteetan egin duten lana, eta adierazi duten konpromisoa euskararen erabilerearen normalizazioan, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatze aldera.
7. Legebiltzarrak bat egiten du maiatzaren 10ean Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste hainbat eragilek egindako adierazpenarekin eta irmoki salatzen du azkenaldian modu nabarmenean ikusten ari garen euskararen biziberritzearen aurkakoak ezezik adostasun sozial handi baten kontrakoak ere badiren hainbat sententzia.



8. Legebiltzarrak bat egiten du azaroaren 4rako euskaingintzaren kontseiluak eta beste hainbat eragilek eta norbanakok oldarraldi hori salatzen deitu duten manifestazioarekin.

EA BILDU

Euzko Abertzaleak